

Adibidea, Sozietate Zerga:

Goimendi Iturgintza SL elkarteak Eskoriatzan dauka bere egoitza eta nagusiki Debagoienan egiten du lan, 5 langile ditu eta mikro-enpresatzat har daiteke. 2023ko apiriaren 1ean derrigorrez erabili beharko du TicketBAI faktura sistema, eta dagoeneko ordenagailu berria eta fakturak egokitzeko software-a erosi ditu. Bulegoan wifia ere jarri du. Honen guztiaren kostua 2.500 eurokoa izan da, eta inbertsio osoa 2021 urtean egin du.

TicketBAI borondatezko epean ezartzeagatik kenkarirako eskubidea du Goimendik, eta likidez arazoak ekiditeko 2021eko abenduan KTB eredia aurkeztuko du, honela, ez du itxaron beharko 2021eko sozietate zergaren aitortpena aurkeztu eta dagokion itzulketa lortzeko.

KTB eredia betetzerako garaian 1. laukitxoa soilik bete beharko du, bertan egindako inbertsio osoa adieraziz. Gainera 3. laukitxoan datorren "Negozio zifraren zenbateko garbia" zenbatekoa egiaztatzea komenigarri da, eta datu zuzena ez balitz bertan zuzendu daiteke. Gainontzeko datu guztiak automatikoki kalkulatuko ditu aplikazioak.

KTB eredian ondorengo itzulketa jasoko du:

Aurreratu daiteken kenkaria						
1	Inbertsio eta gastuak					2.500
2	Muga orokorra					5.000
3	Muga aldakorra (2019ko eragiketa bolumenaren 1% edo 1.500€)					6.550
	Eragiketa bolumena		655.000			
	Eragiketa bolumena x 1%		6.550			
4	Kenkariaren oinarria (1, 2 y 3tik txikiena)					2.500
5	Sortutako kenkaria (60% x 4)					1.500
6	Dagoeneko erabilitako kenkaria (7+8+9)					
7	2020ko sozietate aitortpena					
8	2021eko sozietate aitortpena					
9	Beste KTB eredian					
10	Aurreratu daiteken kenkaria (5-6)					1.500
KTBn itzulketa						
	Sozietate aitortpena	2020	2019	2018	2017	
14	Kuota efektiboa	0	15.000			
16	Kontsumitu gabeko kuota efektiboa	0	15.000			Batura 16 - Itzulketa
17	Itzuliko den aurreratutako kenkaria	0	1.500			1.500
19	Etorkizuneko sozietate aitortpenetan aplikatzeko kenkaria (10 - Batura 16)					0